



XXVI. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK

EPAIMAHAIAREN AZKEN ERABAKIA:

XXVI Rikardo Arregi Kazetaritza Saria epaitzeko helburuarekin Andoaingo Udalak izendaturiko epaimahaia honako hauek osatu dute:

- Mahaiburua: Ainara Rodríguez, Andoaingo alkateorde eta Euskarako zinegotzia.
- Mahaikideak: Allande Boutin, Idurre Eskisabel, Marijo Deogracias, eta Goio Arana.
- Idazkaria: Arantza Aguado.

Epaimahaiak ondorengo azken erabakia hartu du aho batez.

AZKEN ERABAKIA

Aurten Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak hogeitaseigarren edizioa du, eta edizio honetara 27 lan aurkeztu dira. Ezbairik gabe esan dezakegu kalitatezko lan asko aztertzeko aukera izan duela epaimahai honek, horregatik irabazle guztiak aurkeztutako lanak izan dira, ez epaimahaikideek kanpotik ekarritako proposamenak. Hautaketa zaila izan da, batez ere oso entitate ezberdinetako lanak aurkeztu direlako, izan urte batekoak, proiektu osoak, artikulu bilduma luzeagoak eta motzagoak...

Hori bai, zenbait lan bota ditugu faltan, alde batetik, prentsa idatzia ez diren bestelako kazetaritzakoak eta bestetik, Hego Euskal herriko tokiko hedabideenak. Euskarri eta hedabide hauetako kazetariei beren burua aurkeztea anima daitezen nolabaiteko deia luzatzen die epaimahaiak.

Aipatzekoa iruditzen zaigu Kazetari Berria sarirako aurkeztutako lanen kalitatea, aukeratutako gaiekin hasita eta gai horiei emandako tratamenduarekin jarraituta.

1.-EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA.

Epaimahaikideon iritzia da eman beharreko saria dela hau. Lan mardula da, noizbait egin behar zena, kazetaritzak gizartearekiko konpromiso irmoa baitu: gertatutakoaren irudi poliedrikoaren berri ematea, herritarrak egiara hurbilduko dituen. Askotan, egunerokotasunetik at, gure historiaren zati batzuk berreskuratu eta bere garaian landu ez ziren eran aurkeztu, lekukotasun berriak jaso, ikuspegi ezberdinak eskaini... Baina bilduma lan handitik haratago joan den lana da hau, duela urte batzuk ia ezinezkoak ziren lekukotasunak lortu eta garai hartan ume zirenei eta

gaur egun heldu direnei ezagutzera ematea lortu baitu. Lana, erreferentetzat jotzen du epaimahaiak.

Talde handi batean lan egin izanak indarra erakusten du, emaitza ederra, ezin hobea. Liburuan ere bere garapena izan duen arren, sari honekin aintzatetsi nahi da multimediar egindako saiakera interesgarria.

Epaimahaikideek "Gal 30 urte" posible egin duten kazetarien artean, berriki zendu den Aitor Renteria "Txato", Berria-ren Baionako ordezkari burua zena gogora ekarri nahi dute. Bi lerrotxo xume hauen bitartez, luma zorrotz eta jantzi hau omendu nahi dute.

Sariduna: **Eider Goenagak koordinatutako taldea.**

Saritutako lana: ***GAL 30 urte, Berria hedabiderako egindako*** interneteko lanagatik.

Saria: diploma eta Xabier Lakaren serigrafia.

2.-KAZETARI BERRIA SARIA.

Kazetaritzan asko dira lantzen diren gaiak eta generoak. Batzuek urrutira joatea eta bertako errealitatean murgiltzea eskatzen dute; beste batzuek, berriz, erredakzioetan bertan eta inguru hurbilean lantzen dira iturri ezberdinetara joz. Baliteke bigarren genero hori ez izatea lehenengoa bezain ikusgarria, baina bai piztu dezakeela irakurlearen interesa lehenengoak beste. Aurtengo epaimahaiak datu-kazetaritza adibide eredugarria saritu nahi izan du Kazetari Berria atalean, bere ustez era horretako datu bilketa balioan jartzeko garaia iritsi baita. Lehenengo kolpean gaia idor samarra suertatu dakioke irakurleari, baina jorratu duen moduak interesgarri, argi eta erraz bilakatu du. Artikuluen izenburuak jartzeko garaian erakutsi duen trebezia bera adierazi du datuen tratamenduan. Zorrotza datuak emateko unean, baina irakurtzeko eta interpretatzeko errazak izatea lortu du.

Laburbilduz esan daiteke kazetaritza-praktika onaren lagina dela aurtan saritutako hau.

Sariduna: **Garikoitz Goikoetxea.**

Saritutako lana: 2013ko uztailean Berrian argitaraturiko Biztanleriaren inguruko erreportaje saila.

Saria: 3.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroi-ikurra.

3.- SARI NAGUSIA.

Lan hau ez da sari nagusira Bertsolaritza Txapelketa Nagusiaren jarraipenaren inguruan aurkeztu den lan bakarra, baina, bertsolaritza kultura kazetaritzan derrigorrez landu beharreko gaia izanda, oso ohikoa den gai hori erakargarri aurkeztea lortu du, bere artikulak eta iritziak bertsozalea ez denari ere gustukoak bilakatzeraino. Kazetaritza espezializatuaren, adituaren aldeko apustuak eman du emaitza bikaina, nahiz eta kasu honetan kazetariak nahiago izan duen aditu izaera albo batera uztea eta gaiari dibulgaziotik heltzea.

Irakurle zein entzule ororengana iristeko, lehiaketaren ikuspegi osatua, koherentea eskaini du, enfoke ezberdinak jorratu: protagonistak, giroa..., periferiaren ikuspegitik muinera eraman gaitu.

Era berean deigarria da kazetari bakar batek horrelako lan eskerga egin izanak eta horrek adierazten duen alde aurretikako planifikazioa; ondo aukeratzea zer eta nola landu. Hala ere, hausnarketa lan hori ez da traba izan eguneroko kazetaritza, egunero idatzi eta informatu behar hori gauzatzeko.

Berria egunkarian idatzi dituen lanetan oso idazkera ona eta dotore erakutsi du, edozein delarik erabilitako generoa: elkarrizketak, kronikak eta erreportajeak... Genero ezberdinez gain, gaur egungo informazio gizarteak eskaintzen dizkigun euskarri gehienak erabili ditu: irratia, telebista, interneta eta sare sozialak. Horien guztien bidez txapelketari buruzko unean uneko informazioa jarri digu begi bistan.

Sariduna: **Beñat Zamalloa**

Saritutako lana: **2013ko irailetik abendu bitartean Berria egunkarian eta beste hainbat hedabidetan kaleratutako Bertsolari Txapelketaren inguruko lanak .**

Saria: 9.000 euro, diploma eta Xabier Laka eskultorearen oroi-ikurra.

Aho batez harturiko Azken Erabakiaren akta hau epaimahaikide guztiek sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta hamalauko maiatzaren 30ean.

Ainara Rodríguez

Allande Boutin

Idurre Eskisabel

Marijo Deogracias

Goio Arana

Arantza Aguado